

462 zenbakia. 2001eko uztailaren 27a  
JARDUN ELKARTEA

Bergarako astekaria

# Berrigara

UNAMUNO MARILU San Martin Baserria

APARKALEKU ETA  
ZIRKULAZIOKO ARAU-HAUSTEEN  
ARAUTEGI BERRIAK  
LASTER INDARREAN

**Goiena:** Udalak ez du parte hartuko egitasmoan **Triatloia:** Antxintxikako lau lagun Danimarkara



# Urrun heldu al daitezke enpresak garraio zerbitzu aurreratu bat gabe?



## EZ

Begiratu Europa berriari eta merkatu bakarra ikusi. Herrialde-bakar bat balitz bezala erantzuteko ahalmena duen garraio sare batekin.

Begiratu etorkizunean pentsatzen duten enpresei. Ikusi jada eskatzen ari direla lojistika eta garraiorako aukera berriak. Eta erantzun egokiena eman.

Begiratu ekonomia berriari. Eta ikusi garraioa eta distribuzioa ezinbestekoak izango direla. Nola hitzegin genezake Internet-en bidezko salerosketetaz, primerako garraio zerbitzu bat gabe?

Hauek dira, **Guipuzcoana, Deutsche Post Euro Express** taldean sartzera bultzatu duten arrazoiak, Europako garraio eta distribuzio sare aurreratu baten partaide izateko: **Euro Express**.

Emaitzak bidean daude.







# Carlo Giuliani

JOSE ANGEL MIKEO

Carlo Giuliani ei da Antiglobalizazio mugimenduaren lehen martiria. Eta hil aurretiko uanean apuntatzen zeukan pistola argazkietan ikusi eta beldur zirrara batek ikaratu nau. Carlok su-itzalgailu batekin G-8ak bultzatzen diharduen Globalizazioaren suari aurka egin nahi zion, eta han gelditu zen, hilda. Baina Carlo sinbolo bat besterik ez da. Globalizazioa eta Antiglobalizazioa betiko borroka beraren itxura berria besterik ez da. Postmodernismo garai honetan itxura hartzen daudena, eta hildako hau beste hildako bat gehiago besterik ez da milaka hildakoren artean.

Inperialismoa herri batek beste bati bere 'munduaren ikuspegia', kultura, hizkuntza, erlijioa, eta abar inposatzea, indar ekonomiko antolatuek, kapitalismoak, sortu zirenetik oso berea izan duten zabalkunderako estrategia izan da. Amerikaren konkistarekin hasi zen lehen fasea eta europarrek aurrean harrapatu zutena garbitu zuten helburu ekonomikoak aurrera eramateko. Kristautasuna zabaltzeko egin zutela izan zen/da aitzakia ofiziala.

Bigarren ekitaldia Iraultza Industrialean oinarritu eta Asia eta Afrika konkistatuz gauzatu zen. Europako merkatuak ireki eta munduko errekurso naturalen jabe egitea izan ziren arrazoiak. Oraingoan, esplikatuz zuten menderatutako herrialdeetan 'zibilizazioa zabaltzeko' egin omen zela guztia.

Bigarren uholde hau gaur egungo desoreka ekonomiko ikaragarrien sorreran dago: berrehun urteren ondoren munduko biztanleriaren %80 'zabaldu' nahi zuten ere-

du eta antolaketa ekonomikotik kanpora utzita eta miseria bultzatuz.

1950. urtetik aurrera Asia eta Afrikako herrialdeek independentzia lortzean, bigarren sistema honen porrota ekarriko du. Izan ere, oraingoan, independentzia lortu zutenak bertakoak ziren, herri indigenak, eta ez Ameriketako kasuan bezala, non 'independizatuak' europarren seme-alabak izan zirela jokabide inperialista berarekin jarraituko duten lurralde bakoitzeko berezko populazioarekin (Estatu Batuen kasua da nabarmena).

Bigarren ahalegina ere deseginda, indar ekonomikoek bide berriak aurkitzeari ekin zioten: koloniak galduz koloniarik gabeko globalizazioa asmatu zuten: Europako Komunitatea, Ipar Amerikako Komertziorako Hitzarmena... eta horretan dihardute bide berriak asmatuz eta, tarteka, zazpi indartsuenak gehi Errusia txiro-bonbetan aberatsa elkartzuz, munduaren banaketa berria antolatu nahian.

Bizi dugun unea hirugarren uholde baten hasiera da: inperialismoaren zabalkunde handienaren aurrean gaude betiko helburu berberarekin (merkatuen kontrola, lurreko errekursoen ahitzea, lurralde pobreetako lan indarren esplotazioa), baina itxura berriekin. Oraingoan, aitzakiak ere berriak

dira: 'demokraziaren defentsa', 'herrialdeen eskubideak', 'arrazoi humanitarioak'... aitzakia horien babesean munduko edozein lekutan indarrez esku hartzeko eskubidea elkarri aitortzen diote; praktikan Estatu Batuen gidaritzapean jokatzeko dute guztiek.

Globalizazio izena hartu duen ahalegin inperialista nolabait txukundu nahian, pobrezia ere bide horretatik konponduko dela esan digute. Eta, hasteko, munduko herrialde pobreeni, zorraren zati bat barkatu behar omen diete. Dena ez, mendekotasun arrasto bat beti ona da-eta jauna nor den gogoratzeko.

Carlo Giulianiren berriarekin batera irrati batean manifestarien aurkako arrazoiak ere entzun ditut: Genoan elkartuak demokratikoki aukeratuak izan direla eta ez dagoela esku-biderik horren aurka joateko. Inuzente samarra izan behar da han elkartutakoek ordezkatzen zutena herriaren borondatea zela pentsatzeko. Han munduko korporazio ekonomikoen interesak daude jokoan eta horien legean ez dira botoak banaka kontatzen.

Jokoan herrialde denek euren aberastasuna eta aurrerapena baldintza beretan sortzeko duten eskubidea dago. Hori lortzeko ahaleginetan zebilen gazte baten izena jakin dut aste honetan, hil egin dutelako.<

«Inperialismoaren zabalkundearen aurrean gaude betiko helburuekin, baina itxura berriekin»



**BIBI ANDUEZA**  
Kiñu dendakoa

«Goizeko eta arratsaldeko orduetan argazki hobeak lortzen dira, eguzkiak albotik jotzen duelako» **11.**



**JESUS MARTIN**  
i2 bizikleta dendakua

«Tourrian gehixen harritsu nauena Jalabert izan da. Zubeldiakin dezepziñua hartu dot» **13.**



**JOSEBA ZUZETA**  
Antxintxika taldekoa

«Gutako inork ez du Iron Man proba inoiz egin; bukatzea bera ere nahikoa izango da» **14.**



# AGENDA ETA ZERBITZUAK

hi, gazte!



## BEKAK

**Unibertsitate ikasketa eta goi mailako ikasketetarako bekak.**

Eusko Jaurlaritza. Ikasturtea 2001/2002. Epea: urriak 15.

## JARDUERAK

**Zinema kalean.**

Ekainetik irailera arte, Donostiako kultura etxeek hainbat ziklotan banatutako 23 film aurkeztuko dituzte hiriko zenbait toki irekitan. Doan. Azken filma irailaren 8an izango da.

## Folklore.

XIV. Nazioarteko Folklore Jaialdia Loiolako pilotalekuan uztailaren 29an.

## IKASTAROAK

**Langabeak.**

Lanerako Prestakuntzako ikastaroa: sare-en programazioa. Doan. Epea: uztailak 7.

**Gipuzkoako Gurutze Gorriaren prestakuntza jardunaldiak.**

Hainbat ikastaro. Epea: abenduak 1.

## SARIAK

**Komikia.**

"Cima 2001" komiki lehiaketa. Ponferradako Udala. Epea: abuztuak 15. Granadako Errealizadore Gazteen Jaialdia. Epea: abuztuak 31.

## LANA

**Idazkaria eta koordinatzailea.**

Jardun. Lan poltsa. Epea: irailak 7. Dinamizatzailea. Jardun. Egun erdiko jarduna. Epea: irailak 14.

## Begiraleak.

Jardun. 2001-02 ikasturterako. Curriculuma bidaltzeko epea irekita.

**Udaleko garbitzailea.**

Albizturko Udala. Epea: uztailak 30.

**Euskararen Erabilaren**

**Normalizaziorako Teknikaria.**

Urduñako Udala. Unibertsitateko diplomaduna izatea. IV. hizkuntza-eskakizuna. Aldi baterako kontratua. Epea: uztailak 31

## KARNETAK

Nazioarteko Aterpekide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunera.

## INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak. Telefonoa: 943 77 91 57.

E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net

Uztailako ordutegia:

Osteguna: 08:30-13:30 eta 16:00-20:00.

Ostirala: 08:30-13:30.

Abuztuan (6-12 eta 13-19 asteak itxita):

Osteguna eta ostirala: 08:30-13:30.

**OHARRA.** Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazte-erakunde nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

## bertako berbak

Juan Martin Elexpuru



### Izarpera

Erraz izerditzen dena.

– Zuen mutikua oso izarperia da ta orregatik arrapatzen dau ainbeste katarro.

## hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre

	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
<b>Uztailak 19, eguena</b>	17 °C	11 °C	15,2 l/m <sup>2</sup>
<b>Uztailak 20, egubakoitza</b>	24 °C	9 °C	– l/m <sup>2</sup>
<b>Uztailak 21, zapatua</b>	31 °C	9 °C	– l/m <sup>2</sup>
<b>Uztailak 22, domeka</b>	28 °C	11 °C	– l/m <sup>2</sup>
<b>Uztailak 23, astelehena</b>	20 °C	15 °C	– l/m <sup>2</sup>
<b>Uztailak 24, martitzena</b>	21 °C	17 °C	– l/m <sup>2</sup>
<b>Uztailak 25, eguaztena</b>	28 °C	18 °C	– l/m <sup>2</sup>

## oharrak

### ■ 1948an jaiotako enafaria

irailaren 29an Osintxuko Txuringo jatetxean. Irailaren hasieran irekiko dute izena emateko epea.

■ **San Joxepe** jubilatuen elkarteak abuztuaren 18an Donostiako suzko erroberak ikustera joateko irteera antolatuko du. Irteera 16:00etan izango da eta itzulera gauerdian. Izena ematea (850 pezeta) abuztuaren 7ra arte izango da zabalik.

■ **Bergara Igeri Elkarteko zozketan** 7.371 zenbakia izan da saritua. Hala ere, ez da irabazlerik egon aipatutako boletoa ez zelako saldu.

■ **Zine karteldegia:** "Noviembre dulce" filma eskainiko da astebukaerari Novedades aretoan. Egubakoitzean eta zapatuan

22:30ean, eta domekan 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean.

■ **Odol ateraldia** abuztuaren 9an eta 22an, 18:30ean Seminarioko lokalean.

■ **Xabier Arregi "Txapi"** preso ohiaren fidantza ordaintzeko kontu bat ireki dute Euskadiko Kutxan: 3035 0009 16 0090061013. Horretaz gain, Arrano, Kortazar eta Pol-Pol tabernetan 1.000 eta 5.000 pezetako bono-laguntzak daude salgai.

### ■ Berrigara oporretan

Aste honetako alea udako oporraldiaren aurreko azkena duzue. Hurrengo alea, 463.a, irailaren 7an kaleratuko dugu. Ondo ibili!

## kontuan hartu...

### FARMAZIAK

EGUAKITZA 27:

ESTELLA. Matxiategi 5. . . . . 943 76 19 63

ZAPATUA 28:

GUALLAR. San Antonio 5. . . . . 943 76 11 05

DOMEKA 29:

GUALLAR. San Antonio 5. . . . . 943 76 11 05

ASTELEHENA 30:

ESTELLA. Matxiategi 5. . . . . 943 76 19 63

MARTITZENA 31:

PLV. Barrenkalea 25. . . . . 943 76 16 87

EGUAZTENA 1:

ESTELLA. Matxiategi 5. . . . . 943 76 19 63

EGUENA 2:

GUALLAR. San Antonio 5. . . . . 943 76 11 05

### OGIA

DOMEKA 29 . . . . . Konde

### TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Anbulatorioa (txanda) . . . . . 943 76 24 40

Bergarako udaltzaingoa. . . . . 943 77 91 06

Antzuolako udaltzaingoa. . . . . 943 76 62 46

Ertzaintza. . . . . 943 76 53 40

Osasun Etxea . . . . . 943 76 24 40

Asepeyo . . . . . 943 76 16 43

Pakea . . . . . 943 76 13 49

Angiozarko medikua . . . . . 943 78 90 27

Antzuolako medikua . . . . . 943 76 62 23

Odol emaleak . . . . . 943 76 16 24

Alkoholiko anonimoak . . . . . 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak . . . . . 943 76 19 50

UDALA

Bergarako udaletxea . . . . . 943 77 91 00

Antzuolako udaletxea . . . . . 943 76 62 46

Udal Artxiboa . . . . . 943 77 91 32

Igerilekuak . . . . . 943 76 20 51

Kultur Etxea. . . . . 943 77 91 58

Liburutegia . . . . . 943 77 91 62

Kiroldegia . . . . . 943 76 56 41

Mizpirualde Egoitza. . . . . 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia . . . . . 943 76 14 92

Erregistroa. . . . . 943 76 13 15

Jardun. . . . . 943 76 36 61

Idolaz. . . . . 943 76 65 08

Jubilatuaren Etxea. Bergara. . . . . 943 76 21 40

Antzuolako jubilatuen elk. . . . . 943 76 62 71

Postetxea . . . . . 943 76 26 85

Bedelkar . . . . . 943 76 04 68

Akulu AEK. . . . . 943 76 05 18

Udal euskaltegia . . . . . 943 76 44 53

Bergarako notaritza. . . . . 943 76 10 73



**zorionak!**



**Eztizen Bolaños**  
Uztailaren 27an 17 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta ahizpak.



**Iñigo Gallastegi**  
Uztailaren 29an 29. Urte askotarako! Gurasoak, Carmen, Mireia eta Piti.



**Andoni Moñux**  
Uztailaren 31n 2 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



**Aitor Agirrezabal**  
Uztailaren 30ean 2 urte. Urte askotarako! Jone, Garazi, aitaxo eta amatxo.



**Amaia Garitano**  
Uztailaren 28an 8 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta Aitor.



**Jon Barragan**  
Abuztuaren 5ean 4 urte. Urte askotarako! Gurasoak, Ane eta aitona-amonak.



**Olatz Ruiz de Laramendi**  
29an urtebete. Zorionak! Familiakoak; batez ere, Iker.



**Jon Maiztegi**  
Abuztuaren 4an urtebete. Urte askotarako! Ander eta Enara.



**Hodei Gomez de Balujera**  
Abuztuaren 3an urtebete. Urte askotarako! Etxekoak.



**Ainara Gonzalez**  
Uztailaren 28an 7 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta Sonia.



**Idoia Agirrezabal**  
Uztailaren 30ean urtebete. Urte askotarako! Etxekoak eta Nerea.



**Asier Campos**  
Uztailaren 28an 21 urte. Urte askotarako! Itziar eta gurasoak.



**Juan Carlos Murillo**  
Uztailaren 28an 35 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



**Eneko Laria**  
Abuztuaren 3an 12 urte. Urte askotarako! Asier eta gurasoak.



**Nerea Campos**  
Uztailaren 28an 17 urte. Urte askotarako! Itziar eta gurasoak.



**Alazne Basterra**  
Abuztuaren 10ean 5 urte. Urte askotarako! Amaia eta etxekoak.

**eskelak**

URTEURRENA

**Urbana Agirrezabal  
Lamariano**

Lehen urteurreneko meza abuztuaren 19an, domeka, goizeko 09:30ean, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen eta lagunen izenean.*

ESKER ONA

**Justa  
Zubia Eguren**

Bergaran hil zen 2001eko uztailaren 21ean, 80 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko sendikoen izenean.*

*Hurrengo alean, opor osteko lehena, abuztuaren 1etik irailaren 13ra bitartekoan zorion agurrak argitaratuko ditugu.*

**JOXAN**  
ARRAINDEGIÀ



Ibargarai 24  
Tf. 943 76 70 29

**Aldoka  
Maldoka**  
TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

**Sugoi**

ERLOJUAK, ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea  
☎ 943 76 59 54 BERGARA

**Jose M. Martin**

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA  
Tf. 943 76 62 02 / 666 517 295

**BERGARA**  
MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

*Sukalde eta bainu estalkiak*

Urarte 8 BERGARA  
☎ 943 76 11 99 / 14 47.  
Faxa: 943 76 04 77



*Gozogintzan  
aitzindari.*



# B e r g a r a k o OSASUN GIDA

■ **ALBAITARIAK:** **ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaiari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 ■ **ANALISI KLINIKOAK:** **LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA:** **IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK:** **AGIRRE HORTZ KLINIKA.** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23 • **ARAMBURU HORTZ KLINIKA.** Telesforo Aranzadi 1, behe. 943 76 02 46 • **ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95 • **BERGARA HORTZ KLINIKA.** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3,** 2-B. 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **LASKURAIN HORTZ KLINIKA.** Boni Laskurain 4, behe. 943 76 56 57 • **TRIPALDI Enrike.** Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA:** **LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK:** **ARZAK Miren (Reeducacion Postural Global).** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 • **BASTERRETxea, Maria.** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **HOMEOPATA:** **SUSANA GANUZA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **GINEKOLOGOA:** **SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK:** **AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 21 62 • **AZPEITIA Irune.** Fraiskozuri, 4. 943 76 73 43 • **BELASTEGI Mariasun.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 02 03 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA:** **BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA:** **OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50 ■ **PODOLOGOAK:** **ALTUBE Edurne.**

Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

■ **PSIKIATRA:** **GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ek. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK:**

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotritzitatea).** 943 76 14 80 •

**URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa).** 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa).** 943 76 30 76 ■ **SEXOLOGOAK:** **ANA OIARZUN** Errebal 12, 2 esk., EIBAR. 943 70 24 46

*Osasunez bizi izateko!*



## Udalak adierazi du ez duela parte hartuko Goiena egitasmoan

Goienako arduradunek harriduraz hartu dute alkateak adierazitakoa

**Ia bi urte zain egon eta gero, Udalak Goienarekiko duen jarrera aditzera eman du. Asteleheneko osoko bilkuran Gallastegi alkateak esan zuenez Bergarako Udala ez da Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibaren bazkide egingo. Gehitu zuen EAJk eta EAK telekomunikazioen gainean plan orokorra diseinatzen dihardutela, eta planifikazio horretan sartu beharko da Goiena.**



Debagoieneko sei udalek sinatu dute hitzarmena Goienarekin.

Iragarrita zeukan alkateak asteleheneko osoko bilkuran emango ziola erantzuna Goienaren proposamenari, hau da, Goiena kooperatibako bazkide izateari. Iragarrita izan arren, galde-erantzunen atalean EHko kideek galdetu arte ez zuten aipamenik egin.

Erantzuna ezezkoa izan zen. Udalak ez du Goienan parte hartuko. Gallastegik adierazi zuenez, «EAJ eta EA alderdiek lankidetzan dihardute telekomunikazioen gainean plan bat diseinatzen», eta horretarako «erakunde pribatu bat» sortu dute. Plan horrek Euskal Autonomia Erkidegoko telekomunikazioak hartuko ditu kontuan.

Alkateak gaineratu zuenez, «talde politiko gisa uste dugu horrelako planifikazio batek duela irtenbidea telekomunikazioetan. Horregatik, Goienak ez du Udaletik dirurik jasoko, irtenbidea bestetik dago-eta».

Ildo horretatik, adierazi zuen Goiena jakinaren gainean zegoela, alegia, bazeukala EAJren eta EAren erabakiaren berri.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritza ere aipatu zuen. Gallastegiren esanetan, Jaurlaritzak herri edo eskualde telebistak legalizatzen hasteko asmoa dauka, «orain alegala dena legalizatzen». Eta «Jaurlaritzak bailaraka behar diren baimen guztiak eskatu zituen Madrilén, maiatzean».

Era berean, Gallastegik gaur egungo telekomunikazio sistemak ekarri zituen gogora. Alkatearen hitzetan, «Goiena Komunikazio Zerbitzuak ez du etorkizunik, sistema analogikoa erabiltzen duelako, eta etorkizuna sistema digitalean dago, edo zuntz optikoan».

### GOIENA ETA EA-REN ERREAKTZIOA

Estepan Plazaola Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibako lehendakariak, bestalde, alkatearen hitzei erantzun die, eta esan du ez zuela ezezkoaren berririk: «Asteleheneko udalbatzarrean izan genuen ezezkoaren berri lehenengoz». Horrez gain, gaineratu du Goienak bi urtean ezin izan duela Udalarekin proiektuaren gainean batzar formalik egin. Alkateak hainbat mediotan eta baita osoko bilkuretan ere, Goiena egitasmoan nola parte hartu aztertzen jardun dutela adierazi du. Baina, praktikan, Goienako arduradunek ezin izan dute Udalarekin bilera formalik egin.

Horrez gain, Plazaolak adierazi digunez, hainbat

batzar izan dituzte Goienako zuzendaritzako kideek EAJko eta EAKo Gipuzkoako ordezkariekin; azkena, duela astebete. Azken batzar horretan ez zuten ezezkorik jaso, are gehiago, «itxaropentsu» irten ziren Goienako ordezkariak. Batzar hartan Iñaki Galdos EAko Gipuzkoako presidentea izan zen. Berak honakoa esan digu: «Nik ez dakit alkateak zer esan zuen osoko bilkuran eta ez dut ezer esango horren gainean. Baina gu ez gabiltza inongo erakunderik sortzen. Hausnartzen bai, hau da, gero eta ugariagoak diren euskarazko herri eta bailarako komunikabideek, batez ere ikus-entzunezkoek, etorkizunean izango duten egin-kizunari buruz gogoetan. Goienako ordezkariak badakite hori eta ados azaldu dira, eta batzarretan esan izan diegu Goiena plan zabalago baten kokatu nahiko genukeela. Euskal Herriko euskarazko herri komunikabideak hartu eta proiektu orokor indartsu bat diseinatu; eta Goiena han sartzea».

Galdosentzat arazoa beste bat da: «proiektu hori definitu arte Goienari eman ahal zaion irtenbidea da orain arazoa. Luzaro egon gara erantzun bat emateko, eta uste dut heldu dela garaia akordioa egiteko. Falta diren hiru udalak Goienan sartzeko formula aurkitu behar dugu, eta guztion borondatearekin posible dela uste dut, beharrezkoa».

**«Luzaro egon gara Goienari erantzun bat emateko, eta akordioa egiteko garaia da»**

IÑAKI GALDOS, Gipuzkoako EAKo presidentea



# Araudi berria aparkalekuen eta trafiko urratzeen gainean

**Asteleheneko** osoko bilkuran bi ordenantza onartu zituen osoko bilkurak: bata, herri barruan arautu beharra duten aparkatzeko guneen gainekoa; besteak herrian egiten diren zirkulazio arau-hausteak zelan kalifikatu eta zein isun jarri arautuko du. Bilkura izandako alderdien (EAJ/EA, EH eta PSE-EE), oniritzia jaso zuen araudi berriak. Indarrean jarri aurretik, datorren astean, seguru-erik, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dituzte araudi biak. Gero, jendaurrean jarriko dute inork iradokizunik egin nahi izanez gero.

Arautu beharra dagoen aparkatzeko guneei dagokienez, hiru aurrez ikusi dituzte, eta hiruretan ere aparkatzeko denbora mugatuko da. Honakoak dira hiru gune horiek eta bakoitzean autoa uzteko dagoen tartea: Burdiñaten (Errotalde ondoko aparkalekuan) 10 minutu, gehienez; San Martin plazan 15 minutu, gehienez; eta Ibargaraiko aparkaleku publikoan 3 ordu, gehienez.

Burdiñaten astelehene-tik zapatuta iraungo du mugak, 08:00etatik 13:00etara. San Martin plazan, astelehene-tik egubakoitzera 08:00etatik 22:00etara. Betiere,



Bigarren ilaran aparkatzeak, 5.000 pezetako isuna izango du.

Seminarioko eta Banco Guipuzkoanoko fatxadetan. Ibargaraiko aparkaleku publikoan astelehene-tik domekara ezarriko dute denbora muga, 08:00etatik 22:00etara.

## ISUNAK GORA

Aurreko guztiarekin batera, herrian egiten diren zirkulazio arau-hausteek izango duten kalifikazioa eta isunen gaineko arautegia ere onartu zuten astelehenean.

Hiru multzotan sailkatu dituzte arau-hausteak: arinak, larriak eta oso larriak. Eta isunak horren arabera izango dira: arau-hauste arina 3.000 pezeta; larria 5.000, eta oso larria 20.000.

Honako hauek dira arau-hauste arinak, besteak beste: espaloietan eta oinez-

koendako guneetan aparkatzea, galtzadan aparkatzea, gordetako leku ofizialetan aparkatzea, autobus eta taxi geltokietan aparkatzea, baimendutako pasabideetan aparkatzea, oinezkoendako lekuan zirkulatzea, ziklotorrean eta motozikletan kasko barik zirkulatzea, eta espaloietan monopatinekin edo antzekoekin zirkulatzea, arriskua sortzeko arriskuak. Arau-hauste larriak, berriz, hauek dira, besteak beste: bigarren ilaran aparkatzea, arauzko argi barik zirkulatzea, lastertasun muga gainditzea, eta stop seinalea ez errespetatzea.

Hauste oso larrien artean, alkoholemia kontrolari uko egitea, eta agentearen aginduei behin eta berriz kasurik ez egitea jasotzen dira.

## San Joxepeko kultura hamabostaldirako kartel lehiaketa

Bergarako eta Antzuolako erretiratuen elkarteek lehiaketa deialdia egin dute V. Kultura Hamabostaldiko egitarauaren azala aukeratzeko. Edonork parte har dezake lehiaketan, eta gehienez hiru lan aurkeztu ahalko dira. Edozein teknika onartuko dute, baina honako testua eraman beharko dute lanek. Goialdean: *Antzuola eta Bergarako Jubilatuen V. Kultur Hamabostaldia. 2001eko urria*. Eta azpian beste hau: *Nagusien partaidetza*. Izan ere, Hamabostaldiaren gaia honakoa izango da: *Nagusien partaidetza gaurko eta bigarreneko gizar-tean*.

Lanak aurkezteko epea irailaren 6tik 11ra bitartean izango da, biak barne, 11:30etik 13:00etara eta 17:00etatik 18:00etara, San Joxepe elkartearen (Bonifazio Laskurain 9). Informazio gehiago 943 76 30 09 telefonoan.

Epaimahaiak irailaren 14an emango du aditzera irabazlearen izena, eta urriaren 4tik 10era bitartean erakusketan antolatuko dute aurkeztu diren lan guztiak.

*Kabutzia*

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62



**BANKINTER**

**%3,5**etik aurrera lehen 6 hilabeteetan

\*Trekiera komisioa: %1. 35 urte bitartearaino

Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren\*

**PISZINETAKO TABERNA**

**Bokadiloak  
Pintxoak  
Kazuelitak**

*Boni Laskurain z/g  
Tf. 943 76 53 55*



# Angiozarko abadetxean dago Euzkitza Azpikuako familia, baserria erre ostean

**Mainddaoko** Euzkitza Azpikua baserria joan den eguenean erre zen. 13:30 aldera ohartu zen suaz Jose Mari Garai, arratsaldeko lokuluxka egitera joan zenean. Ganbaran piztu zen sua, baina oraindik ez dakite zerk sortu zuen. Suhiltzaileei deitu eta arratsalderako sua itzaltzea lortu zuten arren, kiskalita geratu zen baserria. Familiarteko guztiek lortu zuten baserritik irteeta eta animaliak atera zituzten. Egubakoitzean, baina, 23:00etan, 1 berriro piztu zen sua, hondakinen artean txingarra geratzen delako, suhiltzaileek azaldu zitezenez. Berriro deitu behar izan zieten suhiltzaileei, eta



Eguenean erre zen Euzkitza, eta egubakoitz gauean berriro piztu zen sua.

02:30 aldera arte ibili ziren sua itzaltzen. Egubakoitzean, mangerak laga zituzten suhiltzaileek baserri ondo hartune batean, badaezpada.

Bestalde, peritua han izan da eta erabateko hondamena izan dela esan zuen. Horrek esan nahi du, etxea bota eta berria egin beharko dutela.

## ABADETXERA JOAN DIRA

Mila Elortza Angiozarko auzo-alkateak adierazi digunez, «abadetxea izandakoa egokitu dugu eta hara joan da Garai familia». Zazpi lagun bizi ziren Euzkitzan: aiton-amonak eta senar-emazteak hiru seme-alabarekin. Angiozarko eta Mainddaoko auzotar gehienak ari dira Garai familiari laguntzen, era batera edo bestera. Abadetxea egokitzten jende asko ibili da, eta atzera lagatako ohe eta altzariak eman dituzte auzotarrak. Aurrera begira, Euzkitzakoendako dirua batzeko hainbat ekimen antolatzeko asmoa dute Angiozarko eta Mainddako auzotarrak.

## Errotalde parkeko arku txukundu egingo dute

**Santa Ana** ermitaren alboko eraikina bota ostean agerian geratu diren arku eta horma txukuntzea erabaki du Udalak. Errotalde parkea berritzeko proiektuaren barruan sartuko dituzte lan horiek, eta parkearen parte izango dira arku eta horma. Victoriano Gallastegi alkateak esan digunez, aztertzen ari diren aukeretako bat da arkuak parkerako sarrera funtzioa betetzea.

Duela aste bi bota zuten eraikina. Kontu handiz ibili ziren, Bitoriano Larrañagak, herritar batek, Xabier Aranburu udal museologoari esan zionez, bazegoelako etxe horretan antzinakoa izan zitekeen arku bat. Udal museologoaren esanetan, «berekala ikusi genuen oso ondo egindako arku dela, eta badirudi XVI. mendeko etxe batekoa dela».



JAUNARTZEAK,  
EZKONTZAK, BATAIOAK,  
KINTOENTZAKO  
BAZKARIAK...



**ZABALA**  
JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta, Ibarra 14  
BERGARA.  
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

A  
R  
R  
A  
N  
O



**Taberna**

Kruz Gallastegi BERGARA

**Abuztuan  
zabalik**



# Berrigara

462 zenbakia.  
2001eko uztailaren 27a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.  
20570 Bergara.  
Telefonoa: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta elektronikoa:  
berrigara@topagunea.com  
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

**Zuzendaria:** Edu Mendibil.  
**Erredakzioa:** Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.  
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Mireia Larrañaga.  
**Harpidetza:** Nerea Lazpiur.  
**Testuen zuzenketak:** Sergio Azkarate, Gari Bragado.  
**Erredakzio kontseilua:** Eneko Azkarate, M. Angel Elkoroberezar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.  
**Komikiak:** Peru Azkarate, Oihan Vega, Usua Mendikute, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.  
**Kolaboratzaileak:** Luján Mari Agirre, Maitane Arizabaleta, Juan Martin Elexpuru, Gorka Ortega.  
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara

Tirada: 5.600 ale.  
Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntzaz:



Berrigarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jauriaritzako Kultura saila

## atrebentzia ezpada

### Ze egingo dozu udako oporretan? Nora juateko asmua daukazu?



**Martin Mujika**

Aurten, Bergaran geratuko gara. Hemen inguruan ibilliko gara.



**Miguel Angel Oteiza**

Gasteiztik Santiagora juango gara bizikletan lagun kuadrilla bat.



**Raul Lucena**

Benalmadenara juango naiz hamabost egunerako, 10etik 25era arte. Gurasuekin eta neska-lagunakin juango naiz.



**Antxoni Suinaga**

Donostiara juango naiz ahiztiakin, eta gero hamabost egunerako Torrevieja, han beste ahizta bat daukat-eta.



**Antxon Zangitu**

Ekaiñian hartu giñuan oporrak, eta Tenerifen egon giñan. Abuztuan, irtengo gara mendira edo hondartzara.



**Lierni Arregi**

Bergaran geratuko naiz, lan egin bihar dot-eta. Asteburuetan irtengo naiz, baiña astian zihar hementxe.

## tira biraka oihan vega





adituen esanetan

bergarako zuhaitzak

# Oporretako argazkiak

**A**rgazki-kamara aldean erama-tea komeni izaten da, eta babestuta, poltsa egoki batean. Bestalde, hezetasunarekin, beroarekin eta hondarrarekin ere kontu izan behar dugu. Izan ere, hezetasunak eta beroak kamara eta argazki-filma kalte ditzakete. Hondartzan ere argi ibili behar dugu, hondarra kamara barrura ez sartzeko.

Argazki-filmak erosterakoan, nora goazen kontuan hartu behar dugu; toki argietan 100 ASako sentsibilitatea duten pelikulekin ondo moldatuko gara. Toki ilunetan, aldiz, oihan batean, esaterako, hobe da sentsibilitate handiagoko argazki-filmak erabiltzea, baina 400 ASako argazki-filmekin nahikoa da. Diapositibak edo argazkiak paperean nahi ditugun ere kontuan hartu behar dugu, argazki-filmak ezberdinak izaten dira-eta. Diapositibako pelikulatik paperera inprima daiteke, baita alderantziz ere, baina kalitatea galtzen da. Horregatik, aurrez pentsatu behar dugu zer nahi dugun, eta horren arabera argazki-filma erosi.



BIBI ANDUEZA

Kiñu argazki denda

«Goizeko eta arratsaldeko orduetan argazki hobeak lortzen dira, eguzkiak albotik jotzen duelako»

dagarría eguzkia parez pare dugula argazkirik ateratzea. Eguzkia argazkia ateratzen duenaren atzealdean baldin badago, beti ondo aterako da; dena dela, albotik jotzen badu, politagoa izaten da. Paisaiak erretratatzekoan, lehen planoan zerbait egoteak, zuhaitz bat, esaterako, argazkiari bolumena ematen dio eta jantzi egiten du.

Bukatzeke, teknika alde batera lagata, beste aholku bat emango nuke: argazkiak errespetuz ateratzea; izan ere, herrialde batzuetan jendeari ez zaio gustatzen argazkietan irtererik.

Argazkiak ateratzeko hainbat gauza kontuan hartu behar dugu. Faktore garrantzitsuenetako bat argitasuna da. Erretraturik politenak goizeko eta arratsaldeko orduetan lortzen dira, eguzkiak albotik jotzen duelako. Horrela, argiak bolumen handiagoa ematen du. Ordu txarrenak, hortaz, eguerdikoak dira. Argiaren kolorea ere ezberdina da: eguerdikoa zuria da, eta goizekoa eta arratsaldekoa, berriz, gorriagoa da. Bestalde, ez da gomen-



Haritzak Errotalde parkean.

## Haritz kanduduna

*Quercus robur*

**T**amaina handiko zuhaitza. Hosterorokorrak ditu, adar lodiak eta pixka bat bihurriak, eta enbor azala grisaxka eta zartatua du. Hostoak handiak eta lobulatuak dira, buztan laburrarekin. Fruituak, ordea, ezkurak dira eta kandu luzeetatik zintzilikatzen dira. Aziendak asko estimatzen ditu fruituok, zerriek, bereziki. Irailean heldu eta urrian erortzen dira.

Biologiari dagokionez, oso zuhaitz aberatsa da: inguruan landare eta animalia ugari sortu, elikatu eta bizi dira.

Garai batean gure basoetako errege izan arren, gaur gure herrian ia desagerturik dagoen espeziea da (landaretzaren % 1,1 bakarrik osatzen du). Garai bateko hariztien lekuan gaur egun koniferak, labore lurrak, belardiak... daude, eta bazter lurretan murriztuta geratu dira.

Haritzaren egurra gogorra, ale xehekoa, astuna eta iraunkorra da. Kalitate handiko egurra denez, bere erabilera askotarikoa izan da, eta da. Garai batean baserri eta eraikinen estruktura egurra izan zen, eta itsas armadako eta merkataritzako itsasontziak egiteko ere asko erabili zen. Era berean, orain dela gutxi arte, bere egur ikatzarekin elikatzen ziren burdinolak. Gaur egun, zurgintzan, ebanisterian, upelgintzan... oso estimatua da.

Haritza da Euskal Herriko sinbologia mitikoarekin lotutako zuhaitzetako bat, Gernikako Arbola lekuko izanik. Herritar batzuen esanetan, Errotalde parkean dauden haritzak Gernikako arbolen oinordekoak dira.



Argazki onak ateratzeko faktore garrantzitsuenetako bat argitasuna da.

**Testua:** Maitane Arizabaleta.



## Kofradiaren eguna

Irailaren 16an, **Erreileno eta Tostoi**en Kofradiak bigarren batzar nagusia egingo du. Egitarau zabala antolatu dute: desfilea, meza, txikiteoa, bazkaria... Ohi duten moduan, bost herritar ohorezko kofradiakide izendatuko dituzte: **Bergarako Orfeoia, Ricardo Otaño, Luis Larrañaga "Kikio", Agustin Arantzabal 'Gaztelu' eta Jesus Arantzabal**, hain zuzen ere. Argazkian ikus daitekeen moduan, joan den astelehenean aurkeztu zuten batzar nagusia.



## Idi-demak Basalgon

Basalgoko jaietan ekitaldi berezia ikusteko aukera izan genuen. **Idi-demak** jokatu zituzten eguazten arratsaldean. Bi idi pare aritu ziren lehian, Elorrioko **Arientzako bikote bat**, eta Mutrikuko **Pikuakoa** beste idi pare. Elorrioko idi-parea izan zen irabazlea. Urtero antolatzen dute idi-dema Basalgoko jaietan, hemen inguruan egiten den bakarra.



## Habia balkoian

Boluko balkoi batean, **Mari Karmen Azkarateren etxean**, hain zuzen ere, **karnaba bikote batek habia egin zuen**. Gero eta zuhaitz gutxiago dagoelako ote? San Martzial Egunean ohartu zen Mari Karmen balkoian dituen palaxuen artean habia bat zegoela. Emeak lau arrautza jarrita zituen, eta pare bat astera jaio ziren txitak. Joan den domekara arte hantxe egon ziren, Mari Karmenen familiarekin, eta dagoeneko alde egin dute.




  
**MITOR**  
**TABERNA**  
 Kruz Gallastegi, 1. 943 76 54 69

**IBARGYREN PENTSVAK**  
 BIONA pentsuen biltegia,  
 BIOTER produktuak,  
 haziak eta bestelako nekazal produktuak  
 .....  
 San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79



*izeder*  
**ARTE DEKORATIBOKO**  
**ikastaroak**  
 943 76 71 05. Arruriaga 2

  
**Matxiategi**  
**Elektragintza**  
**S.L.**  
 ELEKTRIZITATE  
 MATERIALEN  
 SALMENTA ETA  
 INSTALAKUNTZA  
 Zurradero 8, behea. 943 76 19 94.

  
**GUREN**  
**INTURAK**  
 Pintatze lanak orokorrean  
 Irala kalea z/g  
 Tel. eta faxa: 943 76 33 01



**Txikittatik dauka bizikletarako zaletasuna. Lokatzako kategorixa ezberdiñetan ibilli ondoren, afizionatuetan lehiatu zan bi urtez, Max taldiakin. Lanbide Heziketa ikasketak egin zittuan eta oin dala 10 urtetik hona i2 bizikleta dendan dihardu lanian.**

**Bizikletak udarako die?**

Ez litzake hola izan bihar.

**Zenbat urtekin euki ziñuan zure lehen bizikletia?**

Hiru urte bete nebanian.

**Zein zan zure txikittako idolua?**

Perico Delgado eta Marino Lejarreta.

Laurent Fignon be asko gustatzen jatan.

**Zergaittik laga jatzun lehiatziari?**

Gora egittia zailla zala ikusten nebalako.

**Oin, mendiko bizikletia ala errepidekoa nahixago?**

Mendikuan ibiltzen naiz gehixago.

**Gustoko trabesia bat?**

Urbasara juatia gustatzen jat.

**Kaskorik erabiltzen dozu?**

Bai.

**Ziklismua da kirolik gogorrena?**

Gogorrenetakua bai. Egun asko jarraixan die eta klima aldaketak jasan biharra dago.

**Ziklismuaz zeñek idatzi edo berba egitten dau onduen?**

Benito Urraburuk, Tito Irazustak...

**Ziklismuaren gaiñian aldizkari bat?**

Bike eta *Ciclismo a fondo*.

**Tourrian egon zara?**

Bai, neska eta biok Luz Ardideneko etapa ikustera juan giñan.

**Tourrian gehixen harritsu zaittuen?**

Laurent Jalabert.

**Eta dezepziñorik haundixena?**

Banesto taldia eta Haimar Zubeldia.

**Beloki podiumera igoko da?**

# Jesus Martin

Baietz uste dot.

**Armstrongek bost Tour irabazi leike?**

Bai.

**Udan, hondartza ala igerilekua?**

Mendixa nahixago.

**Inguruko mendi bat?**

Urbia eta Aizkorri.

**Urtaro bat?**

Udaberrixa.

**Udako gauzarik onena eta txarrena?**

Onena eguraldixa, eta txarrena leku batzuetan ibiltzen dan jende pillua.

**Janari eta edari bat?**

Langostinuak plantxan eta ura.

**Egunkarixan irakurtzen dozun lehen gauza?**

Kiroletako orrialdiak.

**Film bat?**

*Torrenteko* lehen zatixa.

**Lanian, irratixa ala musikia?**

Euskadi Gaztea entzuten dot.

**Musika talde bat?**

Ramones.

**Egin dozun biajerik onena?**

Bizikletan egin doten edozein.

**Bestiengan gehixen baloratzen dozuna?**

Jende ona izatia.

**Zer egingo dozu abuztuko oporretan?**

Dolomitara goiaz, bizikletan ibiltzera.



## ORAINDIK BADUGU ABUZZTURAKO PLAZARIK...

**Hori da eskaini ezin  
dizugun bidaia  
bakarra...**



**...oraingoz.**

### Irteerak BILBOtik:

<b>TENERIFE</b> Apartamentua 2 G (OB)	<b>73.800</b>
<b>LANZAROTE</b> Apartamentua 2 G (OB)	<b>82.600</b>
<b>PALMA MALLORCAKOA</b> Hotela**(OG)	<b>74.400</b>
<b>MENORCA</b> Hotela**(ME)	<b>130.100</b>
<b>IBIZA</b> Hotela**(ME)	<b>108.400</b>
<b>TUNEZ</b> Hotela**(ME)	<b>87.100</b>
<b>TURKIA</b> Hotela**(OG)	<b>85.500</b>
<b>PRAGA</b> Hotela**(OG)	<b>90.900</b>

Dolarraren gehigarria eta tasak ez dira bamean sartzen

... eta, Gainera, Zirkuituak,  
Egonaldiak Kostan, Bidaia  
bereziak Familientzat.

### Irteerak MADRIDik:

<b>MAROKO</b> Hotela**(ME)	<b>86.200</b>
<b>EGIPTO</b> (Itsasontzia) Luxu Handia+Tur.H (OB)	<b>141.800</b>
<b>ESKOZIA</b> (Gazteluak eta lakuak)	<b>132.900</b>
<b>MALI</b> (Dogon Herria)	<b>180.900</b>
<b>SENEGAL</b> (Diolen bidea)	<b>179.900</b>
<b>KANADA</b> (Ekialdeko hiriburuak)	<b>167.600</b>
<b>GUATEMALA eta ANTIGUA</b>	<b>154.900</b>

**HALCON**  
VIAJES-BIDAIK

Norekin ibiliko zara hobeto!

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK: 902 300 600



# Antxintxika taldeko lau lagun Danimarkako Iron Man probara

**Antxintxika triatloi taldeko Julen Garitano, Aitor Larrea, Iker Larrea eta Joseba Zuzaeta abuztuaren 4an Frederician, Danimarkan, jokatuko den Iron Man proban izango dira.**

Distantzia luzeko munduko triatloi txapelketa jokatuko da Danimarkan. Abuztuaren 4an amateurrek izango dira lehian eta hurrengo egunean, berriz, profesionalak. Antxintxika taldekoek Iron Man proban honakoa egin beharko dute: 3,8 kilometro igerian, 180 bizikletan eta maratoia. Joseba Zuzaetaren hitzetan, «gutako inork ez du Iron Man inoiz egin, eta bukatzea nahikoa izango da. Ju-



Aitor Larrea, Iker Larrea, Joseba Zuzaeta eta Julen Garitano.

lenek eta Aitorrek denbora ona egin dezakete». Amateurren proban 1.000 lagun inguruk parte hartuko dute. Ipar Europako probarik garrantzitsuenetakoa da eta izena emateak 40.000 pezetan balio du.

Antxintxikakoak urtarrilean hasi ziren proba gertatzen, eta azken hilabeteotan saio gogorrak egin dituzte. Taldeak denboraldi ona egin du orain arte: Euskadiko duatloi txapelketan taldekako irabazleak izan

ziren; horrez gain, Aitor Larrea eta Julen Garitano Euskadi taldea ordezkatzeko izan ziren, Espainiako duatloi eta triatloi txapelketan, hurrenez hurren.

Bihar, zapatua, abiatuko dira Danimarkara, furgonez, eta abuztuaren 16an itzuliko dira. Proban parte hartzeaz gain, turismoa ere egingo dute. Bihar euren taldekideak animatzen izango dira Fosen.

## FOS-EKO DUATLOIA

Antxintxikako Aritz Kortabarria, Igor Labaien, Aitor Rementeria eta Xabier Uribealgok Fos-eko (Frantzia) duatloian parte hartuko dute bihar, hilak 28: 12 kilometro lasterka, 75 bizikletan eta beste 10 lasterka.

## Garmendia garaile Santa Marina sarian

**Joseba Garmendia** txirrindulari azpeitiarrak Santa Marina saria irabazi zuen zapatuan. Garmendia Iker Frutos eskoriatarri (Fagor) nagusitu zitzaion helmugan. Hirugarren, bi minutu eta 41 segundora, Iker Leonet (Bruesa) izan zen. Lehen bergararra Aitor Zeni-

tagoia izan zen, seigarren postuan. Gazte mailako 65 txirrindulari izan ziren lehian, tartean Sud Garogne talde frantziarrekoak. Taldekako sailkapena Fagorrek irabazi zuen, mendikoa Garmendiak eta Eneritz Iturriagak (4.a) Saiatuenaren saria irabazi zuen.



Aitor Zenitagoia eta Joseba Garmendia eskuratutako trofeoekin. LARRANAGA

**AZPEITXI**

**Jatetxea**

Aranerrek 13 behea ☎ 943 76 55 00

**Silvestre Muñoz, s.l.**

**pinturak**

610 25 99 82 / 610 25 40 37  
943 76 24 11

Amilaga 1, 10 pabilioia. 20570 BERGARA

Pintura-lanak orokorrean  
Pintura industrialia  
Zoru arinak: sintasolak, moketak...



# IPINTZAKO

## futbol txapelketa



### Mongatxurak txapeldun

**Mongatxurak**ek 3 eta 2 irabazi zion finalean Bilburbarek Opel Lam taldeari. Binako berdinketaren ostean, Iban Etxeberriak (txapelketako golegile nagusia 10 golekin) 3 eta 2koa egin zuen eta Mongatxurak taldeak txapeldunen kopa eskuratu zuen. Argazkian, bi taldeak partiduaren ostean.



### Saritutako jokalariaik

**Hainbat** jokalaria saritu zituzten finalaren ostean: Marcos Alonso (Bildurbarek, finaleko onena, argazkian), Alberto Franco (A Ze Flaxa, gol gutxien jaso duen atezaina), Iban Etxeberria (Mongatxurak, golegile nagusia) eta Jesus Eginok (Angiozar, txapelketako jokalaririk beterranoena 41 urterekin).



### A Ze Flaxa garaile beterranoetan

**A Ze Flaxa** 3 eta 1 nagusitu zitzaion Guipuzcoanari beterranoen finalean. Patxi Vallejosek eta Julian Rodriguez "Txuli" k golegile nagusiaren eta jokalaria onenaren saria jaso zuten, hurrenez hurren. Jesus Eginok atezain seguruenarena eraman zuen eta Jabier Lazkanok (56 urte) jokalaria beterranoarena.



### Antolaketa bikaina

**Inoiz** baino partaidetza handiagoa izan da Ipintzako txapelketan, eta antolaketa bikaina izan da. Jaxone Larrañagak eta Uxue Lazkanok plaka bana jaso zuten egubakoitzean, azken 4 urteotan egindako lanagatik eta Jose Luis Beitiarendako ere sari berezia izan zen. Argazkian, antolatzaileak.



Urteaga 9  
Tf. 943 76 18 45



**OGIZUN**  
koop. elk.  
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g  
BERGARA OÑATI  
943 76 20 49 943 78 24 13



Irizar 2  
943 76 14 95

**JAUJA**  
**KIROLAK**






**bonofotoa**

Zein da 1967. urtean sortu zuten Irizar kaleko elkarte honen izena?

**galde debalde**

1. Honako zein esanahirekin lotuko zenuke izarpera bergarar hitza?  
A- Erraz izerditzen dena  
B- Gau izartsua  
C- Erraz pozten dena
2. Zein taldek irabazi du Ipintzako nagusien futbol txapelketa?  
A- Osintxu taldeak  
B- Mongatxurak taldeak  
C- Bildurbarek taldeak
3. Nork egin du Debagoieneko Lausardi koru sinfonikoaren logotipoa?  
A- Iñaki Maidaganek  
B- David Azurzak  
C- Manu Muniategiandikoetxeak



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

Aurreko aleko saria **Maria Begoña Urbistondorentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Maria Begoñari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Abuztuaren 16an, San Roke**  
Galde Debalde: **1-B, 2-C, 3-B**

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izen-deiturak: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

**Codorniu cava Gran cremant**  
lehorra eta erdi lehorra, 3/4 litro.  
**649 PTA!**  
Super BMn beti eskaintzarik onenak!



## Lausardi abesbatzak emanaldia Arantzazun abuztuaren 17an

**Arantzazuko frantziskotarren 500. urtemuga ospatzeko antolatu duten ekitaldi sortaren barruan hartuko du parte Lausardik. Abuztuaren 17an egingo du emanaldia, Arantzazun, 18:30ean. Donostiako musika hamabostaldiko ekitaldien barnean ere bada-go ekitaldia.**



Lausardiko zuzendari eta ordezkariak astelehenero aurkezpenean.

Abuztuaren 17ko ekitaldia Tomas Garbizu (1901-1989) frantziskotarrari omenaldia izango da; izan ere, haren jaiotzaren 100. urteurrera bete da.

Garbizu konpositorea izan zen, eta hark idatzitako *Misa Benedicta* abestuko dute Lausardikoeak, baita Arantzazuko hainbat motete ezagun eta ezezagun ere. Koroak, bakarlariak eta or-

ganoak jardungo dute. Zuzendari lanetan David Azurza Bergarako Orfeoiko zuzendaria arituko da.

Bergarako Orfeoiak eta Arrasateko Goikobalu abesbatzak sortu zuten Lausardi duela hilabete batzuk, eta Oñatiko Ganbara abesbatzaren laguntza ere badu. Aran-

tzazuko emanaldian Bergarako Haur Eskolako Abesbatza ere arituko da.

Logotipoa ere badu, da-goeneko, Lausardik; Manu Muniategiandikoetxea Bergarako pintoreak egin du, gainera. Astelehenean aurkeztu zituzten Arantzazuko emanaldia eta logoa.

**Massimo Nosetti**  
organista San Pedro  
parrokian

**Datorren** abuztuaren 8an, organo kontzertua izango da San Pedro parrokian, 20:00etan. Massimo Nosetti organistak eskainiko du kontzertua. Emanaldia Donostiako Musika Hamabostaldiko ekitaldien barruan dago.

**Turismo bulegoaren**  
ordutegia

**Turismo** bulegoa oporraldi osoan irekita egongo da, irailaren 30a arte. Ordutegia: astelehenetik zapatuta 10:30-14:00 eta 16:30-19:30; domeka eta jaiegunetan 11:30-14:30. Egunero bisitaldi gidatuak egingo dira, doan.

## Kofraixak iraileko lehen asteburura atzeratu dituzte

**Abuztuaren** 31n eta irailaren 1 eta 2an ospatuko dituzte aurten Osintxuko Kofraixa jaiak. Aurreko urteetan abuztuko azkeneko domekan izan diren arren, aurten atzeratzea erabaki dute antolatzaileek. Kontua da abuztuko azkeneko domekatik, 26, aurrera oraindik ere opor aste osoa da-

goela, eta jende asko oporretan izango dela. Horregatik, hurrengo asteburura atzeratu dituzte Kofraixak.

Jaiak, hortaz, abuztuaren 31n, egubakoitza, hasiko dira, 18:00etan, ohiko bizikleta ibilaldiarekin. Guean herri afaria izango da Mexikoko Santa Cecilia mariachiekin. Afarirako txarte-

lak auzoko tabernetan egongo dira salgai 3.000 pezetan. Irailaren 1ean, zapatua, 17:00etan umeendako jolasak izango dira, eta 22:00etan kontzertua (taldeak zehaztu gabe daude). Goizeko 5etan galtzontzilo eta kulero lasterketa egingo da, eta 06:30ean salda banatuko dute. Irailaren 2an,

12:00etan meza izango da, eta gero karitate banaketa egingo dute. 13:15ean Errezilgo Aimar harri-jasotzaileak saioa egingo du. 17:30ean pilota partiduak jokatuko dira, eta gauean, Arno taldearekin dantzaldia egongo da. Bestalde, egun osoan Ainhoa eta Nerea trikitilariak kaleak alaituko dituzte.



# LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

FRONTOI



TABERNA

Fraiskoziuri z/g. 943 76 05 09





## Pertxa eta Lokatza taldeak

**A**maitu da aurtengo Ipintzako futbol txapelketa. Duela urte batzuk herriko futbol txapelketa seminarioan jokatzen zen eta gaztetxoak, gazteak eta beteranoak aritzen ziren lehian. Jeneralean, elkarre gastronomikoez bultzatutako taldeak izaten ziren, baina koadriletatik sortutakoak ere baziren. Adinaren arabera, kategoriari egiten ziren eta talde ugari parte hartzen zuten. Txapelketan nabarmentzen ziren jokalariek Bergara KEko taldeetan jokatzeo aukera izaten zuten. Goiko erretratu zaharrean agertzen direnak alebin mailako Loka-

tza eta Pertxa taldeak dituzue. Elastiko zuria dutenak Lokatzakoak dira. Pertxakoez, berri, kamiseta gorriarekin jokatzen zuten. Argazkia 1975. urte ingurukoa da eta argazkiko gaztetxoek 8-9 urte izango zituzten orduan. Honako hauek dira, ezkerretik esku-mara:

**Zutik:** Jesus Mari Rueda, Joxe Lazkano, Unai Lizartaburu, Igor Garitano, Asier Gallastegi, Joseba Moñux, Gotzon Zabala, Juan Karlos Murillo, Iñaki Muxika, Juan Egaña 'Pitia', Bittor Zangitu, Miguel Angel Elkoroberezibar, Mikel Azkarate, Ander Be-

ristain, Asier Madinabeitia, Jaime Gartzia, Antonio Zabala eta Jabi Arana.

**Makurtuta:** ezezaguna, ezezaguna, Iñigo Antsuategi, Josu Lazpiur, Karlos Lasa, Aitor Elkoroberezibar, Paco Gimbert, Andoni Sagastume, Imanol Guridi, Jon Ander Egaña, Eneko Altube, Gorka Larrañaga, Josu In-clan 'Kuxin' (baloiarekin), Manu Muniategiandikoetxea, Eneko Azkarate, Jon Agirrezabalaga, Jose Ignacio Mondragon eta Dani Santos.

*Argazkia: Roman Larrañaga*

 **Manufacturas LARRAÑAGA**

- Lan-babeserako artikulua
- Seinaleztapena
- Lanerako jantziak

Leizeaga 1.  
Tf. / faxa 943 76 59 53.

 **zumelaga**  
JATETXEA

**58 urte zuen zerbitzura!**

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

 **MEMESA**

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

*Zuri Beltz margoak*

Barnealde eta kanpoaldeko erreforma, pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60  
607 447 494  
943 76 59 59

**LONBIDE**  
ONETAKOAK

Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
☎ 943 76 10 57



**SANTOS**

 **TIEN 21**

Elektrikako tresnak eta argiztapena

Masterreka 2. Tf. 943 76 26 10





BILTOKI bere bezero guztiei  
**OPOR ZORIONTSUAK**  
 opa dizkie eta, bide batez, jakinarazi nahi die  
**ABUZTUAN OPORRENGATIK ITXITA**  
 egongo dela.

Konponketak egiteko zerbitzu ofizialen telefonoak hauek dira:

**TB, bideoa eta soinua:**

Balat 943 20 05 08

**Elektragailuak:**

Otsein-Candy: 943 19 29 23 - 902 10 01 50

Fagor-Aspes: 943 79 22 34 - 79 89 97

Aeg: 943 46 01 11

Corbero: 943 45 55 64

Zanussi: 943 45 81 06

Miele: 943 21 65 13

Whirlpool: 902 23 44 32

Liebherr: 944 45 55 64 - 45 36 04

Bosch eta Balay 943 70 26 97

**DEKORAZIOA-ALTZARIAK**

San Martin plaza 1.  
 Tf. eta faxa: 943 76 43 51

**SUKALDEKO ALTZARIAK**

San Pedro plaza z/g.  
 Tf. eta faxa: 943 76 34 00

**TB, BIDEOA, HI-FI SOINUA**

Barrenkalea 6.  
 Tf. eta faxa: 943 76 25 96

**Zuk kolorea eskatu  
 eta guk eman.**



**Paretetarako, zorurako, altzariak margotzeko...**



Koloreak sortzeko makina.

**ZANGUITU  
 margoak**

Parket flotatzailea • Sintasola • Moksetak • Paper pintatuak

Irala z/g. Tel.: 943 76 19 54 BERGARA



# NISSAN ALMERA TINO BERRIAK SUTAN JARRIKO ZAITU



**2.665.000**  
pezetatik aurrera




SEGURTASUNA



MULTI-LINK  
ESEKIDURA



MODULABILITATEA



Nissan Brake Assist

N.B.A BALAZTAK



**ALDIBI AUTOAK, S.A.**  
**ARRASATE-BERGARA-ELGOIBAR**

Zigarrola 1 - Tel.: 943 71 20 02. Faxa. 943 79 65 65.

aldibi@nortekar.com



Grupo  
**Norteka**